

Emil Zatopek



Emil Zatopek (1922-09-19, Kopřivnice, Txekoslovakia – 2000-11-22, Praga, Txekiar Errepublika), txekoslovakiar kirolaria izan zen. Iraupen-probetan espezialista, ospetsu egin zen 1948ko eta, batez ere, 1952ko Olinpiar Jokoetan. Bere indar eta erresistentziagatik nabarmendu zen, baita bere erritmoaren irmotasunagatik ere. Bertute horien ondorioz, Txekiako Lokomotorra goitizena jarri zioten.

Kirolari honi buruzko sekuentzia didaktikoa da hemendik aurrerakoa.

“Za-to-pek, Za-to-pek”



Emil Zatopek, Erik Ahlden, Londres 1948. *Wikimedia commons*

“Zatopek, Zatopek” artikuluak korrikalariaren bizitzaren gorabeheren berri ematen du.

→ **Bete hutsuneak honako hitz hauek baliatuz, bi sobera daude:**

aldian	erratza
arintzeko	estutu
bakoitzean	jarduerara
beharrean	lausotu
berdindu	miretsiena
burugogor	ohorea
egokia	onduz
entzungor	sorbaldan

“Za-to-pek, Za-to-pek”

Gorka Zabaleta. Berria. 2000-11-23.

Ziurrenik, Pragak inoiz izan duen kale garbitzaile ⁽¹⁾ _____ da Emil Zatopek. 1968an Sobietar Batasuneko tankeak hirian sartu zirenean, Zatopek koronela aurka agertu zen, eta Moskuko agintariek egunero ⁽²⁾ _____ pasatzera behartu zuten, zigor horrekin nazio oso bat makurrarazten zutela jakitun. Goizero, Zatopek handia bere erratzarekin iritsi aurretik, Pragako etxeoandreek euren kalea garbitzen zuten, idoloari iraina ⁽³⁾ _____. Zigorak eraginik ez zuela ikusita, uranio-meategi batera eraman zuten. Han sei urte egin eta gero, kirol ⁽⁴⁾ _____ bueltatzen utzi zioten, oraingoan atzerriko kirol-egunkarien kroniken itzultzaile. Zatopekek, kirolaz asko jakiteaz gain, sei hizkuntza hitz egiten baitzituen. 1990ean Sobietar Batasuna desegin zenean, ⁽⁵⁾ _____ eta askatasuna berreskuratu zituen.

Zatopeken kirol-balentriarik handiena Helsinkiko Olinpiar Jokoetan gertatu zen, 1952an. Lau urte lehenago 10.000 metroetako txapelduna izan zen Londresen, baina Finlandian lorturikoa ez du inork ⁽⁶⁾ _____. Kolehmainen, Ritola eta Nurmi handien etxean, Zatopekek 5.000 metroak 10.000 metroak eta maratoia irabazi zituen, guztietan olinpiar marka ⁽⁷⁾ _____. Lehen bi probak irabazi eta gero, inork ez zuen espero maratoian ere parte hartuko zuenik, baina Zatopek irteera-marran azaldu zen, lagun, mediku eta entrenatzaileen kontrako aholkuei ⁽⁸⁾ _____ eginez. Bere lehen maratoia zen. Hasi baino minutu batzuk lehenago munduko markadun Jim Petersengana jo zuen, eta honela esan zion: “Nire lehen maratoia da, eta lehen kilometroetan zure atzetik joango naiz, erritmo ⁽⁹⁾ _____ hartzeko”. Petersek izugarrizko erritmoa ezarri zuen, eta Zatopek itotzeko zorian eraman zuen, baina honek eutsi egin zion, ⁽¹⁰⁾ _____. Indarrak berdinduta, Zatopek jarri zen tiraka. “Erritmo ona al da?”, galdetu zion Petersi. “Motelegia”, erantzun honek. Zatopekek hortzak ⁽¹¹⁾ _____, eta aurrera jo zuen. Petersek ezin izan

zion jarraitu, eta, azkenean, erretiratu egin behar izan zuten. Zatopek Helsinkiko estadioan sartu zenean, ikusle guztiak "Za-to-pek, Za-to-pek!" oihukatzen hasi ziren. Helmuga zeharkatu zuenean, Jamaikako 4x100 metroetako taldekoek ⁽¹²⁾ _____ hartu zuten. Eromena eragin zuten.

Garaiko kronikagileek zioten ez zuela estilorik. "Ito ⁽¹³⁾ _____ doala dirudi; lepoan kate bat balu bezala mugitzen du burua, ahoa zabalik, mingaina kanpoan, beti mugan". Pauso ⁽¹⁴⁾ _____ hiltzera zihoala omen zirudien hasieratik amaieraraino. Azkenean, iritsi da helmugara.

Zatopek



→ **Audio bat entzungo duzu; ondoren, erantzun ulermen galdera hauei.**

Zatopek

Andoni Egaña. Euskadi Irratia, 2000. urtea. 

1. Txuri-beltzeko argazkiak _____.

- zuri-beltza baino horitzen hasia den edozein argazki du maiteago
- korrikalarien argazki zaharrak ditu maite beste batzuk baino gehiago
- korrikalarien argazki zaharrak baino ez ditu gustuko

2. Argazki zaharrei begira _____.

- ezagutu ez duena atzeman dezakeela uste du
- etorkizuna asmatzeko grina izaten du
- denbora pasatzen zaio igarri gabe

3. Etorkizunean pentsatzen hasita, _____.

- ez du etorkizuna ezagutzeko gogo berezirik
- zientzia fikzioa, birtualtasuna eta enparauak oso begiko ditu
- hipotesiak egiteko grina berezirik ez du

4. Atzo hil zen Zatopek; _____.

- eskerrak! Oso gaixorik zegoen eta
- alde batetik ondo; hartara, garai bateko oroitzapena baino ez dugu izango
- hemendik aurrera haren irudia komenentziara erabiliko dute batzuek eta besteek

5. Zatopeken argazkiak _____.

- herioaren isla mingarria dira
- aurrera egiten duenaren agoniaren isla dira
- joan badoan mugimenduarenak dira

6. Bizitza _____.

- etenik gabeko mugimendua da
- sumatzen da haren argazkietan
- eta heriotza daude islatuta Zatopeken erretratuetan

7. Publikoa ere agertzen da argazkietan, _____.

- 45, 50 urtekoa, hain zuzen
- denak aho zabalik, miretsita
- idoloari gur egiten diola

8. 1968an galoiak galdu zituen Zatopekek, _____.

- eta horrek ilundu zuen izarraren distira
- eta harrezkero are begikoagoa izan zuen Egañak
- Sobietar Batasuneko tankeen alde jarri zelako

9. Egañarentzat Zatopek bizitzarako ikasgai bihurtu zen _____.

- umeei haren berri ematea merezi du
- zaharkituriko balioen ispilu izan zen
- maratoia irabazi zuelako

→ **Egañaren hitzaldiaren transkripzioa duzu hemen, berba zati batzuk galdu egin dira; osatu testua.**

Zuri-beltzeko argazkiak ditut maite; zuri-beltzekoak baina horitzen hasiak. Eta korrikalarienak badira, are maiteago ditut.

Gustatzen zait garai bateko argazki horiei begira denbora alferrik irabaztea, bi era nagusi baitira ezagutzen ez duguna harrapatzen ⁽¹⁾ **saia** _____: atzera begiratzea edo aurrera so jartzea. Datorrena asmatzen hasteak ez dit kilimari sortzen, zientzia fikzioa ez da nire niniko arloa, birtualtasuna ere ez. Espazio-ontzi, pantaila, laser-arma, gene eta ⁽²⁾ **hor** _____ kontuek hotz utzi izan naute beti. Beste muturrean daude zuri-beltzeko argazki horituak, eta hauen artean maiteen Emil Zatopek azaltzen den haiek dauzkak.

Atzo hil zen Zatopek Pragan. Gaixorik zegoen aspalditxoan eta alde ⁽³⁾ **egoista** _____ begiratuta ia hobe; hartara, argazkietako eta film zaharretako Zatopek hura bakarrik geratuko zaigu, eta hura komenentziara ulertu eta goza dezake bakoitzak.

Zatopeken argazkietan herioa beste inon baino hobeto islatzen da. Bere aurpegiera beti da minez, ezinean, agonian ⁽⁴⁾ **doa** _____, baina joan badoa beti.

Zatopeken argazkietan mugimendua islatzen da beste inon baino ⁽⁵⁾ **h** _____: burua batera eta bestera mugitzen du, ahoa irekitzen, begiak limurtzen arnasa emango dion aire apur baten bila.

Zatopeken argazkietan herioa eta mugimendua suma daitezke, eta, azken batean, horixe da bizitza: mugimendua herioaren bila edo ⁽⁶⁾ **herioar** _____ ihesi.


Gainera, Zatopeken argazkietan publikoa ikusten da, orain 50, 45 ⁽⁷⁾ **urt** _____ publikoa, eta haien mirestu-aurpegiak: aho zabalik daude gizonetako, emakumezko eta haurrak. Begietan badute distira berezia, orduko beroki arre eta ilunekiko kontrastean. Idoloa bizitzan behin ikus zitekeen ⁽⁸⁾ **gar** _____ ziren, telebistarik gabeak, bide-ertzeraino joan beharrekoak. Garai hobeak segur aski, nahiz eskasia-garaiak izan.

Zatopek koronel zen 1968an Pragan Sobiet ⁽⁹⁾ **Bat** _____ tankeak sartu zirenean. Zatopekek aurre egin zien, eta galoiak kendu zizkioten. Kale-garbitzaile ipini zuten, lehenik, eta meatzetan lanean, gero. Izarra izarrik gabe uzte ⁽¹⁰⁾ **h** _____ ez du nire begietara mitoaren xarma handitu besterik egin.

Atzo hil zen, bai, Emil Zatopek Pragan, atzo iritsi zen lokomotorra txekiarra azken geltokira. Niretzat bizitzarako ikasgai bihurtu zen. ⁽¹¹⁾ **Atzo** _____ diruditen balioen ispilu izan zen beti: ahalegina, luzerako ahalegina, ahalegin etengabea, etsipenik gabeko ahalegina. Dragoi-bolako borrokalarien zirtizarta ez zuen, Pokemonen eboluzionatzeko gaitasunik

ere ez. Ez zen inondik desapuntatzen, Helsinkiko Olinpiadetan 5.000koa, 10.000koa eta maratoia irabazi baitzituen. Gure umeei Emil Zatopeken berri eman behar ⁽¹²⁾ **gen** _____. Lokomotorra zaharra izan dadila arma txekiar eraginkor bakarra.

Lasterka



→ Egin aukera egokia (a edo b) hutsuneak betetzeko.

8

Jean Echenoz. Meettok, 2012.
(Lasterka nobelaren pasarte)

Estilo, **baiki**, ezinezkoa. Larry Snider ez da horretaz ohartzen den aurrena. Ez da lehen (1) _____ (a) bere kabutan / (b) bere kontura galdetzen nola moldatzen ote den Emil.

Lasterkari batzuek hegan (2) _____ (a) doazela / (b) doazelako itxura dute, beste batzuk dantzan ari direla ematen du, beste batzuk desfilatzen; beste batzuk, badirudi beren zangoen gainean eserita bezala doazela aurrera. Beste batzuek, deitu berri zaien lekura (3) _____ (a) zenbat eta / (b) ahalik eta bizkorren joateko itxura guztia dute. Emilek, (4) _____ (a) horretarik guztitik / (b) hori guztitik deus ez.

Emil, badirudi (5) _____ (a) aitzurrean / (b) aitzurtzen aritzen dela, edo bere burua aitzurtzen duela, trantzean bezala edo zulatzaile baten moduan. Kanon akademikoetatik eta dotorezia-kezka (6) _____ (a) guztitik / (b) orotatik urruti, Emilek oso modu (7) _____ (a) astun / (b) astunean, etenari, torturatuan egiten du aurrera, guztiz kolpeka. Ez du ezkututzen bere ahaleginaren (8) _____ (a) bortxa / (b) bortxatasuna; aitzitik, irakurri egin daiteke haren aurpegi **uzkurtu**, paralizatu, imintziotsuan, lastimagarri gertatzen den aurpegiera etengabe desitxuratuan. **Hazpegiak** itxuraldatuta dauzka, oinaze izugarri batek **urratuak** bezala, mingaina kanpoan (9) _____ (a) aldiz / (b)

aldika, oinetako bakoitzean eskorpioi bat balu (10)____
 (a) moduan / (b) legez. Lasterka ari dela, besteratu dagoelako
 itxura du, izugarriro beste nonbait, arreta hain bildurik
 (11)____ (a) non / (b) ze han egon ere ez dagoela ematen
 baitu, eta, sorbaldetan **kukuturik**, beti alde berera
 makurtutako lepoaren gainean, haren buruak **kulunka**
 egiten du etengabe, balantzaka eta astinduka (12)____
 (a) ezker-eskuin / (b) ezkerretara eta eskuinetara

Ukabilak itxita, gorputz-enborra kaotikoki jiratzuz,
 besoekin ere edozer gauza egiten du Emilek. Halere,
 mundu guztiak esango dizu besoekin egiten dela laster.
 Gorputza hobeto (13)____ (a) higarazteko / (b) higituaraziz, goiko
 gorputz-adarrak baliatu beharra dago, zangoak beren
 pisutik beretik arintzeko: bide luzeko probetan,
 buruaren eta besoen mugimendu-kopuru txikiak
 errendimendu (14)____ (a) onena / (b) hobea ematen du.
 Emilek, ordea, guztiz kontrakoa egiten du, badirudi
 besoen ardurarik gabe doala lasterka: haien **bulkatze**
 konbultsiboa goregitik hasten da, **higidura** bitxiak
 egiten dituzte, batzuetan altxaturik edo atzerantz
 jaurtirik, dilindan edo **imintzio** zentzugabeetan bertan
 behera utzirik, eta sorbaldak ere **inarrosika** doaz,
ukondoak ere goregi altxatuak, zama astuna (15)____
 (a) eramane balu / (b) balerama bezala. Lasterketan, bere
 itzalarekin borrokan ari den boxeolari bat (16)____ (a)
 ematen / (b) itxura du, eta beraren gorputz osoak mekanismo
 hondatua, dislokaturik, mingarria dirudi, (17)____ (a) baizik
 eta / (b) salbu eta zangoen harmoniagatik, pistari irentsi
 beharrean hozka egin eta **murtxikatu** egiten baitute.
 (18)____ (a) Labur esanda / (b) Hobe esan, berak ez du ezer egiten
 besteen modura; besteek, behin edo behin, uste dute
 itxuragabekeriak egiten dituela. (...)

→ **Aurkitu zerrendako hitzei definizio egokia.**

Baiki	Imintzio	Murtxikatu	Uzkurtu
Bulkatu	Inarrosi	Ukabil	
Hazpegi	Kukutu	Ukondo	
Higitu	Kulunka	Urratu	

1. Astindu, higidura azkarrez higitu.
2. Aurpegiaren, begitartearen alderdiak.
3. *Bai* hitzaren indargarria, *egiatanen* baliokidea.
4. Besaurrea besondoari lotzen zaion giltzaren atzeko alde.
5. Bultzatu.
6. Esku itxia.
7. Estali. Ezkutatu, gorde.

8. Janariez mintzatuz, ahoan txikitu.
9. Keinua.
10. Oreka-puntuarekiko edo ardatzarekiko alde batera edo besterako higidura.
11. Papera, oihala, larrua eta kidekoak lanabesen laguntzarik gabe hautsi.
12. Tamaina txikiagoko bihurtu.
13. Zerbait edo norbait kokalekuz aldatu.

Hiztegia

Hemen duzu ikasgai honetan agertu den hiztegiaren lagin bat:

Baiki	Kukutu	Ondu
Bulkatu	Kulunka	Sorbalda
Distira	Lausotu	Ukabil
Entzungor	Limurtu	Ukondo
Hazpegi	Meatze	Urratu
Higitu	Miretsi	Uzkurtu
Imintzio	Murtxikatu	Xarma
Inarrosi	Nini	Zirti-zarta
Isla	Ohore	

→ **Osatu esaldiak zerrendako hitzak erabiliz.**

1. Amaiak _____ batean jarri zion eskua Leireri, eta musu eman masailean.
2. Gizakiaren egiako _____ -a Jaungoikoaren irudi eta antzeko izatean datza.
3. Han, jende haren guztiaren aurrean lotsagarri gelditzeko beldurrez, besaulki baten gibelean _____ zen.
4. Hirurogeita hamar urte inguruko emakumezko zimel bat ikusten zuen eserlekuan _____ -ta, lehen hegaldiaren beldurra ezkutatu ezinik, errezoan.
5. Kapela jasotzeko _____ labur batez agurtu ninduen.

6. Mespretxuzko oihu ttiki bat egin eta... zarrast!
goitik behera _____ zuen lagunaren
alkandora.

Ebazpenak

“Za-to-pek, Za-to-pek”

Ziurrenik, Pragak inoiz izan duen kale garbitzaile ⁽¹⁾ **miretsiena** da Emil Zatopek. 1968an Sobietar Batasuneko tankeak hirian sartu zirenean, Zatopek koronela aurka agertu zen, eta Moskuko agintariak egunero ⁽²⁾ **erratza** pasatzera behartu zuten, zigor horrekin nazio oso bat makurrarazten zutela jakitun. Goizero, Zatopek handia bere erratzarekin iritsi aurretik, Pragako etxeoandreek euren kalea garbitzen zuten, idoloari iraina ⁽³⁾ **arintzeko**. Zigorrak eraginik ez zuela ikusita, uranio-meategi batera eraman zuten. Han sei urte egin eta gero, kirol ⁽⁴⁾ **jarduerara** bueltatzen utzi zioten, oraingoan atzerriko kirol-egunkarien kroniken itzultzaile. Zatopekek, kirolaz asko jakiteaz gain, sei hizkuntza hitz egiten baitzituen. 1990ean Sobietar Batasuna desegin zenean, ⁽⁵⁾ **ohorea** eta askatasuna berreskuratu zituen.

Zatopeken kirol-balentriarik handiena Helsinkiko Olinpiar Jokoetan gertatu zen, 1952an. Lau urte lehenago 10.000 metroetako txapelduna izan zen Londresen, baina Finlandian lorturikoa ez du inork ⁽⁶⁾ **berdindu**. Kolehmainen, Ritola eta Nurmi handien etxean, Zatopekek 5.000 metroak 10.000 metroak eta maratoia irabazi zituen, guztietan olinpiar marka ⁽⁷⁾ **onduz**. Lehen bi probak irabazi eta gero, inork ez zuen espero maratoian ere parte hartuko zuenik, baina Zatopek irteera-marran azaldu zen, lagun, mediku eta entrenatzaileen kontrako aholkuei ⁽⁸⁾ **entzregor** eginez. Bere lehen maratoia zen. Hasi baino minutu batzuk lehenago munduko markadun Jim Petersengana jo zuen, eta honela esan zion: “Nire lehen maratoia da, eta lehen kilometroetan zure atzetik joango naiz, erritmo ⁽⁹⁾ **egokia** hartzeko”. Petersek izugarritzko erritmoa ezarri zuen, eta Zatopek itotzeko zorian eraman zuen, baina honek eutsi egin zion, ⁽¹⁰⁾ **burugogor**. Indarrak berdinduta, Zatopek jarri zen tiraka. “Erritmo ona al da?”, galdetu zion Petersi. “Motelegia”, erantzun honek. Zatopekek hortzak ⁽¹¹⁾ **estutu**, eta aurrera jo zuen. Petersek ezin izan zion jarraitu, eta, azkenean, erretiratu egin behar izan zuen. Zatopek Helsinkiko estadioan sartu zenean, ikusle guztiak “Za-to-pek, Za-to-pek!” oihukatzen hasi ziren. Helmuga zeharkatu zuenean, Jamaikako 4x100

metroetako taldekoek ⁽¹²⁾ **sorbaldan** hartu zuten. Eromena eragin zuen.

Garaiko kronikagileek zioten ez zuela estilorik. “Ito ⁽¹³⁾ **beharrean** doala dirudi; lepoan kate bat balu bezala mugitzen du burua, ahoa zabalik, mingaina kanpoan, beti muga”. Pauso ⁽¹⁴⁾ **bakoitzean** hiltzera zihoala omen zirudien hasieratik amaieraraino. Azkenean, iritsi da helmugara.

+aldian | lausotu

Zatopek

- 1- b
- 2- a
- 3- c
- 4- b
- 5- b
- 6- a
- 7- b
- 8- b
- 9- a

Zuri-beltzeko argazkiak ditut maite; zuri-beltzekoak baina horitzen hasiak. Eta korrikalarienak badira, are maiteago ditut.

Gustatzen zait garai bateko argazki horiei begira denbora alferrik irabaztea, bi era nagusi baitira ezagutzen ez duguna harrapatzen ⁽¹⁾ **saiazteko**: atzera begiratzea edo aurrera so jartzea. Datorrena asmatzen hasteak ez dit kilimari sortzen, zientzia fikzioa ez da nire niniko arloa, birtualtasuna ere ez. Espazio-ontzi, pantaila, laser-arma, gene eta ⁽²⁾ **horrelako** kontuek hotz utzi izan naute beti. Beste muturrean daude zuri-beltzeko argazki horituak, eta hauen artean maiteen Emil Zatopek azaltzen den haiek dauzkat.

Atzo hil zen Zatopek Pragan. Gaixorik zegoen aspalditxoan eta alde ⁽³⁾ **egoistatik** begiratuta ia hobe; hartara, argazkietako eta film zaharretako Zatopek hura bakarrik geratuko zaigu, eta hura komenentziara ulertu eta goza dezake bakoitzak.

Zatopeken argazkietan herioa beste inon baino hobeto islatzen da. Bere aurpegiera beti da minez, ezinean, agonian ⁽⁴⁾ **doanarena**, baina joan badoa beti.

Zatopeken argazkietan mugimendua islatzen da beste inon baino ⁽⁵⁾ **hobeto**: burua batera eta bestera mugitzen du, ahoa irekitzen, begiak limurtzen arnasa emango dion aire apur baten bila.

Zatopeken argazkietan herioa eta mugimendua suma daitezke, eta, azken batean, horixe da bizitza: mugimendua herioaren bila edo ⁽⁶⁾ **herioarengandik** ihesi.

Gainera, Zatopeken argazkietan publikoa ikusten da, orain 50, 45 ⁽⁷⁾ **urteko** publikoa, eta haien mirestu-aurpegiak: aho zabalik daude gizonezko, emakumezko eta haurrak. Begietan badute distira berezia, orduko beroki arre eta ilunekiko kontrastea. Idoloa bizitzan behin ikus zitekeen ⁽⁸⁾ **garaia** ziren, telebistarik gabeak, bide-ertzeraino joan beharrekoak. Garai hobekak segur aski, nahiz eskasia-garaia izan.

Zatopek koronel zen 1968an Pragan Sobiet ⁽⁹⁾ **Batasuneko** tankeak sartu zirenean. Zatopekek aurre egin zien, eta galoiak kendu zizkieten. Kale-garbitzaile ipini zuten, lehenik, eta meatzetan lanean, gero. Izarra izarrik gabe uzte ⁽¹⁰⁾ **horrek** ez du nire begietara mitoaren xarma handitu besterik egin.

Atzo hil zen, bai, Emil Zatopek Pragan, atzo iritsi zen lokomotorra txekiarra azken geltokira. Niretzat bizitzarako ikasgai bihurtu zen. ⁽¹¹⁾ **Atzokoak** diruditen balioen ispilu izan zen beti: ahalegina, luzerako ahalegina, ahalegin etengabea, etsipenik gabeko ahalegina. Dragoi-bolako borrokalarien zirti-zarta ez zuen, Pokemonen eboluzionatzeko gaitasunik ere ez. Ez zen inondik desapuntatzen, Helsinkiko Olinpiadetan 5.000koa, 10.000koa eta maratoia irabazi baitzituen. Gure umeei Emil Zatopeken berri eman behar ⁽¹²⁾ **genieke**. Lokomotorra zaharra izan dadila arma txekiar eraginkor bakarra.

Lasterka

Estilo, **baiki**, ezinezkoa. Larry Snider ez da horretaz ohartzen den aurrea. Ez da lehena **bere kabutan** galdetzen nola moldatzen ote den Emil.

Lasterkari batzuek hegan **doazelako** itxura dute, beste batzuk dantzan ari direla ematen du, beste batzuk desfilatzen; beste batzuk, badirudi beren zangoen gainean eserita bezala doazela aurrera. Beste batzuek, deitu berri zaien lekura **ahalik eta** bizkorren joateko itxura guztia dute. Emilek, **horretarik guztitik** deus ez.

Emil, badirudi **aitzurrean** aritzen dela, edo bere burua aitzurtzen duela, trantzean bezala edo zulatzaile baten moduan. Kanon akademikoetatik eta dotorezia-kezka **orotatik** urruti, Emilek oso modu **astun**, eten kari, torturatuan egiten du aurrera, guztiz kolpeka. Ez du ezkututzen bere ahaleginaren **bortxa**; aitzitik, irakurri egin daiteke haren aurpegi **uzkurto**, paralizatu, imintziotsuan, lastimagarri gertatzen den aurpegiera etengabe desitxuratuan. **Hazpegiak** itxuraldatuta dauzka, oinaze izugarri batek **urratuak** bezala, mingaina kanpoan **aldika**, oinetako bakoitzean eskorpioi bat balu **legez**. Lasterka ari dela, besteratua dagoelako itxura du, izugarriro beste nonbait, arreta hain bildurik **non** han egon ere ez dagoela ematen baitu, eta, sorbaldetan

kukuririk, beti alde berera makurtutako lepoaren gainean, haren buruak **kulunka** egiten du etengabe, balantzaka eta astinduka **ezker-eskuin**.

Ukabilak itxita, gorputz-enborra kaotikoki jiraturaz, besoekin ere edozer gauza egiten du Emilek. Halere, mundu guztiak esango dizu besoekin egiten dela laster. Gorputza hobeto **higiarazteko**, goiko gorputz-adarrak baliatu beharra dago, zangoak beren pisutik beretik arintzeko: bide luzeko probetan, buruaren eta besoen mugimendu-kopuru txikiak errendimendu **hobea** ematen du. Emilek, ordea, guztiz kontrakoa egiten du, badirudi besoen ardurarik gabe doala lasterka: haien **bulkatze** konbultsiboa goregitik hasten da, **higidura** bitxiak egiten dituzte, batzuetan altxaturik edo atzerantz jaurtirik, dilindan edo **imintzio** zentzugabeetan bertan behera utzirik, eta sorbaldak ere **inarrosika** doaz, **ukondoak** ere goregi altxatuak, zama astuna **balerama** bezala. Lasterketan, bere itzalarekin borrokan ari den boxeolari bat **ematen** du, eta beraren gorputz osoak mekanismo hondatua, dislokaturik, mingarria dirudi, **salbu eta** zangoen harmoniagatik, pistari irentsi beharrean hozka egin eta **murtxikatu** egiten baitute. **Labur esanda**, berak ez du ezer egiten besteen modura; besteek, behin edo behin, uste dute itxuragabekeriak egiten dituela. (...)

1. Astindu, higidura azkarrez higitu. **Inarrosi**
2. Aurpegiaren, begitartearen alderdiak. **Hazpegi**
3. *Bai* hitzaren indargarria, *egi*tanen baliokidea. **Baiki**
4. Besaurrea besondoari lotzen zaion giltzaren atzeko alde. **Ukondo**
5. Bultzatu. **Bulkatu**
6. Esku itxia. **Ukabil**
7. Estali. Ezkutatu, gorde. **Kukutu**
8. Janariez mintzatuz, ahoan txikitu. **Murtxikatu**
9. Keinua. **Imintzio**
10. Oreka puntuarekiko edo ardatzarekiko alde batera edo besterako higidura. **Kulunka**
11. Papera, oihala, larrua eta kidekoak lanabesen laguntzarik gabe hautsi. **Urratu**
12. Tamaina txikiagoko bihurtu. **Uzkurto**
13. Zerbait edo norbait kokalekuz aldatu. **Higitu**

Hiztegia

1. Amaiak **sorbaldak** batean jarri zion eskua Leireri.
2. Gizakiaren egiako **ohore-a** Jaungoikoaren irudi eta antzeko izatean datza.
3. Han, jende haren guztiaren aurrean lotsagarri gelditzeko beldurrez, besaulki baten gibelean **kukutu** zen.

4. Hirurogeita hamar urte inguruko emakumezko bat ikusten zuen eserlekuan **uzkurtu-ta**, lehen hegaldiaren beldurra ezkutatu ezinik, errezoan, ahapeka.
5. Kapela jasotzeko **imintzio** labur batez agurtu ninduen.
6. Mespretxuzko oihu ttiki bat egin eta... zarrast! goitik behera **urratu** zuen gutuna.